

# noaia



**Solasaldi eta ipuin kontaketa ziklo zabala iragarri dute udal liburutegian**

**Lehen sorosle eta sorospen ikastaroa iragarri du DYAk maiatzerako**



## **Igandean, Andatzara**

**Usadio zaharra berritzeko eguna iritsi da**



**G15** GIPUZKOA  
HIGIEZINA  
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

**SALEROSKETA & ALOKAIKUAK**

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO


688 739 733 info@g15usurbil.eus  
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL



**USURBIL**  
OPTIKA

**4** Urteko  
Garantia

Interes  
Gabeko  
Finantzaketa  
\*Banketxeak onartzen



**PILARIK  
GABEKO**

TEKNOLOGIARIK  
AURRERATUENA

Entzumen  
azterketa  
**DOAN**

Entzun  
telebista  
eta mugikorra  
zure audifonoetan

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

**ARATZ**  
zabaleta anaiak  
1989tik



*Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da*



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak  
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

## Albisteak iruditan

# “Bihotz-bihotzez, mila esker!”

**N**epalgo emakumeak laguntzeko Udarregi ikastolako LH 6. mailakoek azken hilabeteotan landu duten elkartasun proiektua borobiltzeko unea heldu zaie. Bildutako laguntza Nepal-dala Gobernu Kanpoko Erakundeari helarazi eta ondoko eskertza irudi eta mezua helarazi digute Udarregitik.

### Eskertza

“Iritsi da bihotzak hunkitu dizkigun proiektu honi amaiera emateko momentua. Lan handia, baina emankorra... Gustora aritu gara ideiak proposatzen, gauzatzen... Nepalgo errealitatea ezagutzeko interesgarria izan da, batez ere, hango neskek zein bizi baldintza dituzten gertuago sentitze-ko. Eta errealitate hura ezagutzeko gogorra izan den arren, pozik gaude! Proiektuarekin lortutako dirua baliatuz, zerbait aldatzeko aukera izango delako. 5.275



Udarregikoek bildutako laguntza Nepal-dala Gobernu Kanpoko Erakundeari helarazi diote.

euro!! Ez da kopuru makala!! Diru hori baliatuz, hango neskatxa batek 3-4 urtez ikasketak eta mantenua ziurtatua izango dituela jakin dugu.

Baina hau guztia ez zen posible izango herriak izan duen inplikaziorik gabe.

Erantzuna itzela izan da! Biba zuek! Proiektu hau zuena ere egin duzue! Bihotz-bihotzez, mila esker! Eta Nepal-dalari ere eskerrak eman nahi dizkiogu aurrera eramaten duen proiektu zoragarri honengatik!”

## Laburrean

### Udal baratzeak

Udal baratzeak ustiatzeko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu da. “Orain, alegazioak aurkezteko hamar laneguneko epea irekiko da eta maiatzaren 4a izango da horretarako azken eguna”, Udalak aditzera eman duenez.

### Odol emaileen oharra

Maiatzaren lehena jai denez, hilaren 15era atzeratu dute hitzordua; ohi bezala, 16:30-20:30 artean Udarregin. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola eman asmo duenak hona deitu dezala: 943 007 884.

### III. Uxue Trail proba

Ekainaren 18an egingo da, goizeko 9:00etan hasita. Hiru lasterketa izango dira aukeran: luzea (20 km), motza (11,5 km) edo Uxue paseoa (5,5 km). Izen-emaitea zabalik da kronoak.com atarian. Dortsal solidarioa ere eskura daiteke bertan.

# noaia

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkarte@noaia.eus /// www.noaia.eus  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Diseinua: Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,  
publizitatea@noaia.eus

#### Banaketa:

Iñaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

#### Inprimategia:

Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

#### Harremanetarako:

erredakzioa@noaia.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Usurbilgo Udala

Euskal Herreria!





Luis Aranalde

## Tolerantziari kanta

**P**asa den ostiralean es-treinatu zen Espainia osoan hain txalotua izan den Estibalitz Urresola zinegilearen pelikula: “20.000 mila erle espezie”. Berlingo Festibalean interprete onenaren Zilarrezko Artza jaso zuen Sofia Otero neskato protagonistak eta Malagan pelikula onenaren Urrezko Biznaga, Urresola pelikularen zuzendariak. Lehen aldiz bota zutenean Berlingo Festibalean hamar minutuko txalo zaparrada jaso zuen. Inoiz ez zen horrelakorik gertatu euskal pelikula batekin. Haurtzaroko transexualitatea da pelikularen gaia eta Aitor mutikoaren ikuspegitik egiten du; izen horrekin eta beste begiradarekin ez du bere burua ezagutzen. Hasieran Aitor deitzen den mutikoak Cócó deitua izatea nahia du eta gero Lucía. Haurra ez dator bat besteek beragandik itxaroten dutenarekin eta berak ez du ulertzen zergatik.

2016an Ekai Lersundi, Ondarroako 16 urteko mutil gazteak bere buruaz beste egin zuen tratamendu hormonalaren zain zegoelarik eta gertaera horren ondoren Lau-dioko zinemagileak erabaki zuen transexualei buruzko pelikula bat egitea. Gertaera horrekin “benetan hunkituta



“Haurtzaroko transexualitatea da 20.000 mila erle espezie pelikularen gaia”.

### LUIS ARANALDE

**“Nik sentitzen dudana epaitzeko eskubiderik ez du inork”, zioen transexual batek duela gutxi**

sentitu ginen”. Une horretan garbi ikusi zuen jendeari azaldu behar ziola haur transexualek eta beren ingurukoek bizi zuten egoera askotan ulertezin hori. Horretarako NAIZEN, Euskadiko eta Nafarroako Adin Txikiko transexualen Familien elkartearekin jarri zen harremanetan beren esperientziak eta sentimenduak gertutik ezagutu ahal izateko. Jasotako dokumentazioa zinemako gidoi bihurtu zuen. Eta film horrekin, berak esan bezala, haur transexualei buruzko

elkarrizketa lasai bat eragitea nahi izan zuen. Aniztasuna eta desberdintasunak balore aberasgarriak direla frogatu nahi du filmak.

Pelikula hori egitea sekulako apustua izan zen; izan ere, erronka asko zeramatzan berarekin. Alde batetik, Sofia Otero neska koskor protagonistak ez zuen inongo esperientziarik interpretazio munduan, ez zen inoiz jarri kamera baten aurrean eta bestetik, oso zaila da gaztetxo batek pertsonaia- ren bi aurpegi horiek espresatzea.

Pelikulan zehar euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez hitz egiten dute naturaltasun osoz. Eszenak ipar Euskal Herrian eta Hegoaldean filmatuak daude. Urresola oso kontent gelditu zen NAIZEN familiakoentzat bultzada bat zelako beren

proiektua. NAIZEN elkartekideek bihotzez eskertu diote Urresolori “pantaila handira gure seme-alaben errealitatea maitasunez eta modu fidelean eramatea”.

Mikel Gurpegui zinema kritikoa dio Urresola bezalako zinegileak gure artean sortzea luxu bat dela; izan ere, bere lehen luzemetraian hain zine aberatsa eskaini digu! Transexualen mundu horretara naturaltasunez, inteligentziaz eta sentikortasunez hurbiltzen da. Ekai Lersundik gutun bat utzi zuen idatzita bere buruaz beste egin aurretik. Karta horretan, etorkizuneko belaunaldiei esperantza eman nahi zien, “bizitzeko mundu egokiago bat aurkituko zutelakoan eta haur transexualei harrera hobea egingo zitzaielakoan”.

“Nik sentitzen dudana epaitzeko eskubiderik ez du inork”, zioen transexual batek duela gutxi. Erle espezie bezainbeste gorputz, identitate edo deitura badira eta norberak bere izatea aurkitu behar du. Aniztasun horren metafora dira erleak. Bilaketa horretan jardungo da film guztian zehar Aitor/Cócó/Lucía transexuala. Tolerantziari himnoa da pelikula hau. Nire uste apalean, heziketa zentro guztietan ikusi behar lukete film hau.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
·eguneko menua ·asteburuko menua  
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak.  
paellak enkarguz!

943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

**txirriStra**  
TABERNA

**-Plater konbinatuak**  
**-Ogitartekoak**  
**-Pintxoak**

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
USURBILGO ATARIA

# Sutegin banatu dira CAF-Elhuyar sariak

CAF-Elhuyar sarien banaketa Usurbila itzuli da. Iragan astean banatu zituzten Sutegin, iker-tzaileek aurkikuntza berriak egiteko ezinbestekoa duten begirada lelo bilakatuta; “Begiratu urrunera” aldarrinean. 41 lan jaso dituzte, “zientzia eta teknologiaren arloko gaien eta ikerketan euskarazko dibulgazioa, kazetaritza eta gizarteratzea bultzatzea, saritzea eta aitortzea” helburu duen ekimenaren edizio honetan.

Segidan duzue lan sarituen berri. Saritu guztiek 2.000 euroko ordaina eta Imanol Andonegi Mendizabalen eskultura bana jaso zuten. Sorkuntza beka deialdiko irabazleek 5.000 euroko dirulaguntza jaso dute.

## Lan sarituak

■ Dibulgazio-artikulu orokorraren saria: “Garena egiten gaituena, egiten duguna idazteko”, Judith Zubia Aranburu (Arrasate).

■ Egilearen doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-arti-



‘Begiratu urrunera’ aldarrinean egin dute aurtengo sari banaketa.

## CAF-ELHUYAR SARIAK

**“Saritu guztiek 2.000 euroko ordaina eta Imanol Andonegiren eskultura bana jaso zuten”**

kuluaren saria: “Elektroiekien dantzan nanoeskala argitze-ko”, Mattin Urbieta Galarraga (Deba).

■ Zientzia-kazetaritza kategoriako saria: “Dragoi txiki bat

egongelako horman”, Iñaki Sanz Azkue (Hernani).

■ Lehen sektoreko lanen kategorian: “Aralar, balioen eta interesen aniztasuna parke natural batean”, Aitor Garmendia Etxeberria (Itsasondo).

■ Sorkuntza-beka: Jon Sanchez Carrascoren (Donostia) “Semiosi-genesi” eta Kulturaz Azpeitiko Kultur Kooperatibaren “Ia dena” lanentzat.

■ Merezimendu-saria: Jacinto Iturbe Barrenetxea.

## Jakin Jardunaldia ekainean ospatuko da

Uztailean egin ohi zen baina, aurten, ekainaren 22an eta 23an ospatuko da UEU-ren udako ikastaroen baitako Jakin Jardunaldia. ‘Gizarte mugimenduak: erronka berriei elkargune berriak’ izango da aurtengo lema eta bertaraten diren gonbidatuek hausnartzeko bide ugari proposatuko dituzte. Matrikulazio epea aurrerago zabalduko da.

## Errigorako produktuen banaketa

### Udarregin egingo da

Martxoan zehar Errigoraren udaberriko kanpainan zehar produktuak eskatu zenituztenok adi. Bidean datoz, baina nobedadeekin. Orain arte bezala NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzara ez, Udarregi ikastolaren eraikin gorrira jo beharko duzue produktuok jasotzera. Bi bilketa egun finkatu ditu kultur elkarte honek ikastolako erdiko aretoan:

■ Maiatzak 12, ostirala: 16:00-19:00.

■ Maiatzak 13, larunbata: 11:00-13:00.

# Ostiral honetan, EAJ-PNVren ekitaldia Artzabalen

Udal hauteskunderi loturiko kanpaina maiatzaren 12an hasiko da ofizialki. Alderdiak ordea, lehenagotik ari dira lanean. Euren hautagaiak eta hautes-zerrendak aurkezten, besteak beste. Ostiral honetan EAJ-PNVren txanda izango da.

## Ostiral honetan, Artzabalen

Usurbilgo EAJ-PNV alderdiak aurkezpen ekitaldi bat egingo du ostiral honetan, hilak 5,

arratsaldeko 19:00etatik aurrera Artzabalgo plazan.

## Usurbildarrentzat aukera berriak emateko konpromisoa

Usurbilgo alderdi jeltzaleak duela bi aste prentsa-ohar baten bidez jakinarazi zuenez, “aurrerantzean bidelagun izango duzuen gizon-emakume taldea usurbildar guztien ongizatearen eta bizi kalitatearen alde lan egiteko helburuarekin osatu dugu”.

Xabier Otxoa izango da EAJ-ren zerrenda gidatuko duena. Alkategai jeltzalearen esanetan, “hartzen den erabaki orok, gutxienez, ondorio bat dauka eta hau da unea erabaki berriak hartzeko. Taldean, usurbildarrentzat aukera berriak emateko konpromiso osoa daukagu, seriotasunez, anbizioz eta ilusioz, herriari, etorkizunera begira, ziurtasunak emateko erantzukizuna hartzen dugu”.



Xabier Otxoa izango da EAJ-PNV alderdiko alkategia.

# “Erraustegiek sortutako kutsadura konpontzeko erraustegiak itxi behar dira”

**E**rraustegiaren errealitate kutsatzailea agerian utzi eta ixtea eskatzea helburu zuen martxa egin zuten apirilaren 29an Lasarte-Oriako Okendo plazatik Zubietako plantara, “Erraustegia airea, ura eta lurra kutsatzen” aldarripean. Errausketaren Aurkako Mugimenduak deitutako hitzordua, hain zuzen, hesitua eta Ertzaintzaren zaintzapean zuten sarbidean amaitu behar izan zuten, duela urtebete, 2022ko maiatzean egindako martxa bukatu zuten gune berean hain zuzen.

Urtebete honetan, egoera askorik ez dela aldatu adierazi dute antolatzaileek, erraustegiaren kalteak “ezkutuan eta isilpean” gordetzen segi dutela agintarietara, “baina hilabeteotan argitara ateratzen joan dira ezkutututako egia deseroso batzuk”. Esaterako, Arkaitzerekekako kutsadura. “GHK-k publikoki ukatzen segi du bere ardura denik. Baina geroztik jakin da, GHK-k bere barne batzarrean aitortzen duela guk salatutako isuri horiek badaudela eta Ekondakin kontratari zigor espediente ireki diola. Zubietako erraustegia hasieratik gau arte kutsatzen ari da inguruko hainbat lurzoru, ur eta landareak”.

## Ebidentziak ukatzen

Horri guztiari buruzko datuak hilabeteotan azaleratzen joan direla gogorarazi zuten antolatzaileek, ToxicWatch fundazioak bildutako laginekin egindako azterlanetan, baita GHK-ren aginduz eginikoeetan ere. EHU-ko ikerketa talde Ekopolen lana ekarri zuten gogora. “Zubietako erraustegiak bi mila aldiz gaintitu zuten gehienezko kutsadura muga 2020an. Datu eta infor-



Errausketaren Aurkako Mugimenduaren esanetan, “Zubietako erraustegia hasieratik gaur arte kutsatzen ari da inguruko hainbat lurzoru, ur eta landareak”.

## EKOPOL, EHU-KO IKERKETA TALDEA

**“Zubietako erraustegiak bi mila aldiz gaintitu zuten gehienezko kutsadura muga 2020an”**

mazio kezkarri franko bada Ekopolen azterketa horretan; erraustegia martxan jartzeko operazioak legez kanpo egin zituztela, lehen bi urteetan programatu gabeko 240 geldialdi izan zituela, zaborrak erre izan dituztela keak eta gasak filtratu gabe, Zubietako instalazioek ez daukatela legeak eskatzen duen kontrol automatikorik kutsadura handiegia denean labeak geldiarazteko...”.

## Parisetik alarma mezua

Datuon aurrean, agintarietara “ezikusia egiten” segitzen dutela salatu zuten larunbateko martxa amaieran. Horregatik, ziotenez, “Zubietako erraustegiaren atarian gaude berriro ere, agintariei exijitzeko geldi-

dezatela erraustegia, ez dezatela gehiago hondakinik erre, ez Zubietan, ez Añorgan, ez Bergaran eta ez Urretxu-Zumarragan”. Parisko erraustegi handi baten eraginez, berri eman zuten gainera, bertako agintarietara “herritarrei eskatu diete ez jateko haien etxeetako oiloen arrautzak”.

Hainbeste datu kezkarriren aurrean, martxaren dei-

tzaileek “garbi esan nahi dugu hori ez dela konponbidea. Erraustegiek sortutako kutsadura konpontzeko erraustegiak itxi behar dira. Ez bota kutsaduraren zama berriro ere herritarren bizkarrera. Aire, lur, ur eta janari garbi eta osasuntsuak nahi ditugu. Bizitzeko moduko mundu bat utzi nahi diegu gure ondorengo haur eta gazteei”.

## Ezkeltzuko proiektua hurbiletik ezagutzeko aukera

Ezkeltzu Bizirik plataformak martxa antolatu du maiatzaren 13an. “Zizurkilgo Ezkeltzu mendian zentral eolikoa eraikitzeko ekimena aurkeztu du Green Capital enpresak. Inguru zoragarri hori ezagutzeko irteera antolatu du Andatza-Ezkeltzu Bizirik! elkarrekin”. Zutabe bana abiatuko da Usurbildik eta Zizurkildik.

“Hegaztiei, landareei eta ondare arkeologikoari buruzko azalpenak” eskainiko dituzte.

### Maiatzak 13, larunbata

- 9:00 Usurbilgo plazan.
- 9:30 Zizurkilgo P.M. Otaño plazan.
- 10:00 Ezkeltzuko magalean (Zizurkil aldetik).
- Ondoren, hamaiketako.



# Arkaitzerrekako isurketen ikerketa bateratua agindu du Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak

2020ko eta 2022ko Arkaitzerrekako isurketak lotuak daudela ikusi eta bi gertaerok modu bateratuan ikertzea agindu du Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak. Hala berri eman du GuraSOSek. “2023ko apirilaren 17ko auto baten bidez, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak ebatzi du Donostiako 5 zenbakiko Instrukzio Epaitegiari dagokiola erraustegiko isurketen ikerketa prozedura bakar batean egitea, 991/2020 aurretiazko eginbideetan. Horretarako, arrazoiak eman dio Fiskaltzaren eta GuraSOS elkartearen planteamenduari, bat datorrena 4. zenbakiko Instrukzio Epaitegiaren iritziarekin”.

Erabakiak ez du atzera bueltarik. “Auzitegiaren autoa irmoa da, eta haren aurka ezin da errekurtsorik jarri”. Ez hori bakarrik. “Une horretatik aurrera, Instrukzioko 5. zenbakiko Epaitegiak azarotik geldirik zuen ikerketa aktibatua beharko du. Zehazki, GuraSOS elkarteak 2022ko irailaren 14ko idazkian eskatutako hainbat eginbide gauzatzeko Fiskaltzak 2022ko urriaren 10ean egin dako eskaerari buruz erabaki behar du. Eginbide horien bidez, polizia judizialaren esku uzten dira, batez ere, hainbat ikerketa-eginbide, delituaren inguruabarrak ikertzeko, aztarra edo froga materialak aurkitzeko eta begizko ikuskapena egiteko, ikertutako egitea argitzen lagun dezakeen gutzia deskribatuz”.

## “Ikerketa bateratu eta sakona egitea lortu da”

GuraSOSen ikuspegitik, honako hau albiste baikorra da, “erraustegia sortzen ari den kutsaduraren ikerketa zuzen bideratzen duena. Lehen urrats



2020 eta 2022ko isurketak lotuta daudela ondorioztatu du Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak. GuraSOSen esanetan, “Auzitegiaren autoa irmoa da, eta haren aurka ezin da errekurtsorik jarri”.

## GURASOS

**“Berriz ere eskatzen dugu arduradun politikoek egoera larria aitortzea eta gizarte zibilarekin elkarrizketa-prozesu bat abian jar dezatela, instalazioaren beharrezko kontrol demokratikoaren premisatik irtenbide bat aurkitzeko”**

horretan, ikerketa bateratu eta sakona egitea lortu da erraustegiaren funtzionamendu okerrari buruz, horrek lurpeko eta azaleko uren kutsadura oso larria eta iraunkorra eragin du eta”.

## Elkarrizketarako deia

Nabarmenezko moduko bi ezaugarri ditu lerrootan aipagai dugun auzitegiaren ebazpenak, “beti ere kontutan hartuta beti ere une prozesal honetan zantzuarekin egindako baieztapenetaz ari garela noski.

Lehenengoa, ingurumenaren aurkako ustezko delitua izateko kutsaduraren existentzia eta larritasuna bera da. Bigarrena, auzitegiak isurketa-gertakari horiek erraustegiaren funtzionamenduan dutela jatorria adierazi izana. GHK-k eta Foru Aldundiak behin eta berriz ukatu dituzte bi gai horiek, kutsadura bera eta horren jatorria erraustegiaren funtzionamenduan”.

Testuinguru honetan, beste behin, konponbide adostu bat eskatu dute larrizat jotzen duten egoera hau eragiten ari den auziarentzat. “Berriz ere eskatzen dugu arduradun politikoek egoera larria aitortzea eta gizarte zibilarekin elkarrizketa-prozesu bat abian jar dezatela, instalazioaren beharrezko kontrol demokratikoaren premisatik irtenbide bat aurkitzeko”.

Ebazpen honetara nola heldu diren azaldu du ohar bidez aipatu elkarteak. “Auzia ebazteko, Ministerio Fiskalak

59/2022 ikerketa-eginbideei hasiera eman izana aztertu du Auzitegiak. Bertan, SEPRONARI eskatu zion errekastoa eta kutsatutako uren azalerrate-puntua ikuskatzeko, uren kanalizazioak ikuskatzeko eta edozein substantziaren lixibiatuen edo isurien balizko filtrazioak errekastoa uretara ikuskatzeko, eta atestatua egiteko, kutsaduraren jatorria eta kausa, irismena, errekastoen eragina eta fauna ikertzeko, eta errudunak identifikatzeko. Hortik abiatuta, egiaztatu da SEPRONAK ofizio horri erantzun ziola, eta adierazi zuen 5. zenbakiko Instrukzioko Epaitegiak agindu ziola UCOMARI zehaztea 2020ko salaketa eragin zuten kutsatzaileen isurketaren jatorria, eta errekerimendu horretan oinarrituta, uren eta luraren analisiak egiteko, 2022ko uztailearen 26tik 29ra bitartean, aurretiazko azterketa eta laginketa bat egin zutela Arkaitz errekararen ibilgutan eta Oria ibaiarekin duen elkargunean, hamaika lagin lortuz lau laginketa-puntutan, eta horietako bat atestatuan ageri den isurketa-puntutik 150 metrora dagoen industria-isurketako puntuaren ahoan hartutakoa da, 5. Epaitegian ikertzen ari diren atestatuan jasota dagoena eta 2022ko uztaileko salaketan isurketa-puntu gisa islatzen den berbera. Aurrekotik, Auzitegiak ondorioztatzen du “ez genukeela hainbeste aurkituko erraustegiaren funtzionamenduarekiko independente den eta jarduera horretatik kanpoko enpresek egiten duten jarduera batekin; aitzitik, une oro 2020an gertatutakoen antzeko isurketei buruz ari da, eta haren jatorria GIGAREN funtzionamenduan kokatzen da”, eta “beharrezko konexioak daude”.

# “Muralaren errelatoa osatu dugu”

50 urte bete dituen Jose Luis Zumetaren murala hobekiago ezagutu nahi duenak, egunotan Sutegira joan besterik ez du; ostiralean ireki zuten erakusketara hain zuzen. Zumeta Arte Estudioak, Usurbilgo Udalak eta 650 Usurbil Bizi egitasmoko kideek sustatu duten ekimenaren nondik norakoak aurkeztu zituzten apirilaren 28ko inaugurazioan.

“Ez genuen urteurren hau oharkabean pasatzerik nahi”, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak inaugurazioan adierazi zuenez. Zergatia argi azaldu zuen; “artelan hau Usurbilgo herriaren erakusleihen nagusia delako, gure herriak duen altxor nagusietakoa delako eta altxor hau, artelan hau, Euskal Herriko artelan esanguratsuenen artean ere leku propioa izatea nahiko genuke”. Arrastoa utzi baitu kanpoan, baita herrian ere. “Ezin da Usurbil ulertu Zumetarik gabe, Jose Luis Zumetak eta Usurbilek osatzen dutelako binomio banaezin bat”, alkatearen esanetan, “gure herri izaerari arnasa emateraino. Izan ere, Zumetaren mundu artistikoa, formak, koloreak, osagai ezinbestekoak direlako gure herri iruditerian eta bere obra izengabeek Usurbilen eta usurbildarren bihotza okupatu izan dutelako betidanik”. Horren lekuko kokatu zituen irekiera ekitaldian, frontoi atzeko murala eta aurrean duen Mikel Laboa plaza, “Zumetak berak diseinatutakoa” baita.



Zumetaren muralari buruzko erakusketa aurreko astean inauguratu zen. Maiatzaren 15era arte egongo da zabalik.

## AGURTZANE SOLABERRIETA

**“Artelan hau Usurbilgo herriaren erakusleihen da, gure herriak duen altxor nagusietakoa”**

### Transmisioan eragiteko

“Muralaren sortze prozesua nolakoa izan zen erakutsi eta batez ere oraingo belaunaldi ere gizarteratzeko” baliatu nahi dute erakusketa eta datozen gainerako ekimenak ere sustapen lanetan diharduten Usurbilgo Udalak, Zumeta Arte Estudioak eta 650 Usurbil Bizi egitasmoko kideek. Guztiok “eskuz esku aritu gara elkarlanean ospakizun honen antolakuntzan”. Transmisioan eragin nahi dutela nabarmendu zuen alkateak, “gure identitatearen, kulturaren, artearen edo bestelako edozein adierazpide artistikoren transmisioan, gure ustez horixe baita, belaunaldi berriei gure artisten lana erakustera emateko legatu

hori erakustera ematea baita, Jose Luis Zumeta bezalako artistei egin diezaiekegun omenaldirik onena”.

### Erabaki ausarta

Udalak hasieratik bat egin du proiektu honekin; ez soilik urtemugako ekimenekin. Bere garaian baita muralaren sortze prozesuan eragiten aritu zen, alkateak oroitarazi moduan. “Usurbilgo udalak berak eskatuta egin zuen Zumetak artelan hau 1973-74 urte artean. 1972ko urriaren 30ean egindako udalbatzan hartu zen erabakia. Erabaki hartan esaten zen, ia 200.000 pezeta, 194.800 pezeta bideratuko zirela materiala erostera eta artistarentzat ere finkatu zen ordainsari edo soldata bat”.

Udalbatza hark hartutako erabakia txalotu zuen alkateak. “Txalotzekoa iruditzen zait frankismoaren urte gogor haietan, orduko udalbatzak euskal kulturaren eta artearen alde egindako apustu hori,

izandako ausardia, bai orduko Udalak, herritarrek eta Usurbilgo herriak orohar. Izan ere, hamarkada haietako kultura eztaandaren plaza eta lekuko izan baitzen gure herria”.

Gogora ekarri zuen Ez Dok Amairu mugimenduari Usurbilek izandako lotura estua; besteak beste, Artze anaien bidez edota Usurbilgo kaleetan dagoen haien arrasto nabaria, “izan Mikel Laboa plaza edo Remigio Mendibururen artelana kasu. Garai haietan sortu zen Gaur mugimenduko kide izan zen Jose Luis Zumeta bera, eta herri tradizioa, abangoardiaren ikur bihurtuta, garai hartako euskal abstrakzioaren protagonista nagusietako batean bilakatu zen hamarkada haietan”.

Horregatik guztiagatik zioen, “Usurbilek euskal sorkuntzarekin izan duen eta gaur egun duen harremana eta konpromisioa erakusten dute gure kaleek, euskal kultura arnasten da gure kaleetan”.

## Abian da ‘Usurbil Museo Irekia’ egitasmoa

Hortik dator hain zuzen, udalherri honen balore eta proiektu eraldatzaileetan oinarrituriko herri nortasuna erakutsi nahi duen 650 Usurbil Bizi proiektuaren baitan martxan jarri duten egitasmoetako bat; ‘Usurbil Museo Irekia’ izenekoa. Kaleetan baitago artea. Agurtzane Solaberrietak gogorarazi

zuenek, “Usurbilera datorren edonork nahikoa izango du gure kaleetan mugitzea, edonora begiratzea, eta artelan bat ikusteko aukera izango du, izan

kalean, plazetan, hormetan. Lehengo zein oraingo euskal sortzaile eta izen handiko sortzaileen lanak eta ondare az-tarnak nonahi aurki daitezke”.



# Usoa Zumeta: “Apirila urteurren hilabetea da etxekoentzat”

Hilabete berezian zabaldu da 50 urte bete dituen Zumetaren muralari lotutako erakusketa. Apirilean jaio eta zendu baitzen frontoi atzeko artelanaren egilea. Eta hilabete horretan hasi eta amaitu zuen baita, lerroan protagonista dugun sortze lana bera. Horregatik, erakusketaren ostiraleko irekiera ekitaldian Zumetaren alaba Usoak zioenez, “apirila etxekoentzat urteurren hilabetea da”.

Erakusketaren prestaketa lanetan jardun du Usoak azken bi urteotan. “Murala lehen lerroan jartzeko asmoz ikerketa lanetan hasi nintzen, duela pare bat urte. Azken urtean, Mikel Onaindia eta biok aritu gara informazio bila”. Aipatu



Ismael Manterola, Agurtzane Solaberrieta, Usoa Zumeta eta Mikel Onaindia, Sutegiko erakusketaren irekiera ekitaldian.

## ‘ZUMETAREN MURALA’

**“Usoa Zumetak erakusketaren prestaketa lanetan jardun du azken bi urteotan”**

zuenez, “bide-orri polita izan da, sorpresaz bete”.

Esaterako, “muralaren pieza bat topatu dugu, baita jatorrizko proiektua, edo buztinez egindako aitaren pipa, autoerretatua dena. Sorpresa pila bat egia esan”. Ikerlan honi esker zabaldu ahal izan da erakusketa eta horren emaitza da baita plazaratu duten kata-

logoa. “Azken hau, erakusketaren katalogoa baino liburu dena, muralaren errelatoa osatu dugu. Espero dut denok gozatzea, batarekin eta bestearekin, erakusketarekin eta katalogoarekin”.

Hau dena prestatzen bide-lagun izan dituenak eskertu nahi izan zituen Usoa Zumetak, “egitasmo hau gauzatzen lagundu didaten guztiak”.

## Erakusketako ordutegia

‘Zumetaren muralak 50 urte’ erakusketa maiatzaren 15era arte izango da zabalik Sutegin, ordutegi hauetan:

- Astelehenetan: 17:00-20:00.
- Asteartetik ostiralera: 11:00-13:00 / 17:00-20:00.
- Larunbat eta igandeak: 11:30-14:00 / 17:00-20:00.

## “Zumetaren asmoa lortu da, artea kalera eta jendearengana hurbiltzea”

1972. urte amaieran aurkeztu zuen Jose Luis Zumetak frontoi atzeko sortze lanaren proiektua. “Bi erronka nagusi zituen”, oroitu du Mikel Onaindiak. Batetik, tamaina, 145 metro karratuko artelana zen, eta “ez zuen sekula zeramika landu”. Urtebeteko prozesuan egindakoa, “esperimentazio lan izugarri bat” izan zela dio arte historialariak. Hain zuzen, bide horretan “prozesuan sekula ez zuen ikusten osotasunean. Horregatik, ikusgarria da Sutegiko erakusketa-aretoan dagoen jatorrizko pintura gero nola eramaten duen eskalan mural handira, nola mantentzen duen horman, zeramikan, freskotasan, dinamismo eta indar hori”.

Zumetaren murala garai-

ko testuinguruan kokatu nahi izan zuen, bestalde, Ismael Manterola arte historialariak. 1973, frankismo urteak. “Nola da posible halako lan bat egitea Usurbilen 1973. urtean?”. Kultur berpizkundearen baitan sortu zen Gaur taldeko kidea zen Zumeta. “Haien helburua ez zen bakarrik artea egitea, artea herriarentzat egitea eta kalean jartzea”. Baina “nola jarri pintura bat kalean?” galdetzen zuen Manterolak, hortxe artista usurbildarraren lehen erronka. Zeramika baliatuta aurre egin ahal izan zion, teknika honek “aukera ematen du artelan handi bat egiteko, batez ere moduluen bitartez egiten delako, zati txikiz egiten delako. Bestalde, oso iraunkorra da, euriarekin edo haizearekin ez da horrenbeste kaltetzen eta

horrek posible egin zuen halako lan bat egitea”.

Merezitako garrantzia ez zaio aitortu frontoi atzeko artelanari. Eta horrek azalpen argia du arte historialari honen hitzetan. “Arte historialariak oso klasistak gara eta hierarkiak jartzen ditugu artelanen inguruan. Dударik gabe, pintura da arterik garrantzitsuena. Horregatik, zeramika lanak beti bigarren mailan jarri izan dira. Horregatik, ez zaio horrenbeste garrantziarik eman orain gutxira arte”.

Halere, Jose Luis Zumetak Usurbilen egin zuen moduan, garai beretsuan nazioartean “zeramika erabiltzen zen batez ere muralgintzan, artelanak kalera ateratzeko, jende guztiak harreman zuzena izateko artearekin”. Baita usurbildarrek

ere frontoi atzeko sortze lanarekin. “Nola hartuko zuten garai hartako usurbildarrek lan hori?”, galdetu zuen Ismael Manterola arte historialariak. “Agian guk baino askoz hobeto. Egia da talde hau oso integratua zegoela gizartean eta beraien lana ez zuten hain arrotz ikusten, eta ikusten bazuten ere, konfiantza handia zuten artistek egindako lanengan, konfiantza zuten artista horiek zerbait berezia eta garrantzitsua egiten ari zirela”. Horren harira, erakundeek ahalbidetu bazuten ere artelan hau gauzatzea, “usurbildarrek beraiek ere oso ondo barnerratu zuten” artelana. Ondorioz, zioenez, “Zumetaren asmoa lortu da, artea kalera eta jendearengana hurbiltzea”.

# Txalapartaren bigarren festa, ate joka

**M**aiatzaren 12tik 14ra II. Txalaparta Festa ospatuko da Usurbilen, segidan datorren egitarau oparo honen bueltan. Jexux Artze oroitzeko zikloa izango den honetan, bere anaia Joxani buruzko ekitaldirik ere izango da, berari eskainita Peru Galbete herritarrak berriki aurkeztu duen laburmetraia proiektutako baita.

Egunotan jakin da hain zuzen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduak Mikel Laboa Katedraren barruan Joxan Artze doktorego aurretiko ikerketa proiektuen saria, beka deialdia sortu duela, euskarazko testuak sustatzeko.

## Usurbilgo II. Txalaparta Festa: Jexux Artze gogoan Maiatzak 12, ostirala

- Goizean, Udarregin Txalaparta kontzertu didaktikoa (DBH4ko ikasleekin).
- 19:00 Salbatore elizan Txalaize kontzertua: Kimu (Txalaparta), Mixel Etxekopar (ahotsa eta haizezko musika tresna



Herri erromeri oparoa iragarri dute maiatzaren 13rako.

## TXALAIZE

**“Maiatzaren 12an txalaparta kontzertu berezia egingo dute Salbatore elizan, 19:00etan hasita”**

tradizionalak) eta Jesus Martin Moro (organoa).

## Maiatzak 13, larunbata

- 11:45-14:00 Herri erromeria Mikel Laboa Plazan: Adar deia, txalaparta irekia, albokariak, txalaparta irekia, txalaparta ikasleen emanaldiak, txorizo egosi eta sagardo banaketa.
- 14:30 Bazkaria Patri jate-txean. Txartelak salgai 25 euroan Lizardin edo 645 008 735 (azken eguna maiatzaren 10a).

- 18:00 Kontzertuak herriko hainbat txokotan, Olanonea plazatik hasita: Usurbilgo txalapartariak, Txotx Txalaparta taldea, Zigoitiako Txalapartariak, Biotx.

## Maiatzak 14, igandea

- 19:00 “Bide bazterrean Hi eta Ni kantari” Peru Galbeteren laburmetraia Sutegiko auditorioan. Ondoren, kontzertua.
- Sarrerak: 5 euro (usurbilkultura.eus edo NOAUA!ren egoitzan).
- Zehaztasunak: Peru Galbete Joxan Artzeren hitzen oihartzunean sortu du ‘Bide bazterrean hi eta ni kantari’ film laburra. ‘Punto de vista’ jaialdian estreinatua zuen martxoan. “Joxean Artzeren poemak entzun eta irakurtzen ditugu film honetan. Film hau poema ere bada. Poema laburra, poemaz, soinuaz, iraganeko irudiz eta oraingo irudiz egina”. Laburmetraiaren ondoren, kontzertua eskainiko du Peruk.
- Antolatzailea: Jexux Artze K.E.
- Laguntzailea: NOAUA! Kultur Elkarte.

# San Ixidro Eguna bezperan ospatuko da aurten

Maiatzaren 15ean izan ohi den arren, aurten astelehenez egokituko da eta bezperara, hilaren 14ra aurreratu dute antolatzaileek San Ixidro Eguna.

## Maiatzak 14, igandea

- 12:30 Ongi etorria eta haiaiketakoa, Dema plazan.
- 13:00 Aizkolariak.

- 13:30 Bertso-saioa eta argazkia.
- Ondoren, bertso-bazkaria Artzabalena.
- 18:00 Herri kirolak: pentatloia eta harri-jasotzaileak.
- Antolatzailea: Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba.
- Laguntzailea: Usurbilgo Udala.



Datorren igandean, maiatzak 14, herri kirolak izango dira arratsalde partean.



Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

**Artzi** Patxi Jateketa

· bazkariak EGUNERO

· afañak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725

☎ 688 690 361





Irudiaz: Antonio Elizategi / © San Telmo Museoa, Donostia.

**ERAKUSKETA**  
**ZUMETAREN MURALAK 50 URTE**

**Apirilak 29 - Maiatzak 15**  
Sutegin



**BISITA GIDATUAK**  
*Usurbil Museo Irekia*

Maiatzak 6, 7, 13, 14, 27 eta 28  
Sutegin hasita / 12:00

Izen-ematea: [650usurbilbizi.eus/agenda/](https://650usurbilbizi.eus/agenda/)  
Prezioa: 3€ (18 urtetik behera, doan)



*Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera*



**udajolas** 2023  
**udaleku irekiak**

Udajolas Usurbilen erroldatutako 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago. Uztailaren 4an hasi eta 28an amaituko da, eta ordutegi hau izango du: 09:30-13:30. Ostegunetan irteerak egingo dira eta 16:30ean bukatuko dira.

**Izena emateko epea:** maiatzak 2tik maiatzak 10era (biak barne)

Izen-ematea egiteko lotura:  
<https://labur.eus/DWCUs>



**NOVA**



# Ospakizun betea izan zen Dantza Egunkoa

**D**antza Eguna izan zen larunbatean eta Orbeldi dantza taldeak eta Euskal Kantu taldeak bat egin zuten eguerdi partean. Kalezarretik kaxkorako bidea hartu zuten kantuan eta dantzan, eta herriko leku batzuetatik pasa ondoren, Udarregi Ikastolako jangelara joan ziren kantu-bazkari eder bat osatzera.

Kantuan eta dantzan pasatu zuten bazkalostea ere, trikitixa eta gitarra doinuekin. Bertatik, frontoirako bide hartu zuten Tranpaldo irekiari bide emateko.

## Dantzariak aktore lanetan

Jaia gauera arte luzatu zen. “Hala bazan!” herri ikuskizunak jakinmin handia piztu zuen. Dantzariak aktore lanetan ikusi genituen, izatez 2020ko udaberrian eskaini behar zuten emanaldian. Covid-19ak zapuztutako edizio haren ostean, aurtengorako berreskuratu dute ikuskizun hau



Dantza Egunko kalejira Kalezarretik abiatu zen. Usurbilgo Euskal Kantu Taldearekin batera osatu zuten kaxkorako bidea.

herriko musikariak, Santue-neko banda bidelagun zutela. Dantza, antzerkia, zuzeneko musika... Hilabeteetako lan-taren emaitza, herri ikuskizun borobil bezain txalotua, orain-goan ipuinen hariari tiraka.

## Zozketa

Tokiko produktuez osaturiko oterra zozketatuko zutela iragarria zegoen. Esan eta egin. “Hala bazan!” herri ikuskizunaren amaieran jendaurrean egin zuten zozketako zenbaki

sarritua, 461 izan zen.

XI. Dantza Eguna Joxpa taldekoekin erromeria giroan amaitu zuten. Baita Orbeldi dantza taldeak asteotarako prestatua zuen Dantzaroa ziklo oparoa ere.



Dantzaren hamaika adierazpide ezagutzeko aukera egon da azken bi asteburuetan.





Dantza Egunaren baitan eskainitako "Hala bazan!" herri ikuskizunak jakinmin handia piztu zuen. Irudi gehiago [noaua.eus](http://noaua.eus) atarian.

## Igoera eskuratu du Usurbil FTko jubenil taldeak

Usurbil FTko jubenil mutilek partida garrantzitsua zuten larunbat arratsaldean Haranen. Mundaiz SCD taldearen aurkako norgehiagoka erabakigarria zen, garaipenak iguera txartela ziurtatzen zielako usurbildarrei. 2-0 izan zen azken emaitza, Usurbil FT taldearen gozamenerako.

Partida hasi eta 15 minutura lortu zuten usurbildarrek lehen gola. eta beranduago etorri zen bigarrena. Garaipen honekin Preferente mailarako igoera eskuratu du taldeak. Ospakizunez beteriko arratsaldea izan zuten jokalariek eta klubak. Zorionak!



Usurbil FT taldeak 2-0 irabazi zuen Mundaizen aurkako partida eta emaitza honi esker Preferentera igo da.



# Edertu zaitez!

## PRESOTERAPIA

Ballancer\*

- Drainatze linfatikoa
- Zirkulazioa
- Oxigenazioa
- Likidoen erretentzioa
- Toxinak kanporatzea
- Hanka nekatuak

ESKAINZA · OFERTA ·  
- % 30

943 571 680 | 620 852 875

10 SAIO  
180 126€

enarestetika.com

@enarestetika

Eskaintza 15 egunez

Muna-Lurra 2, behea, Usurbil

snar ESTETIKA



**Ane**  
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT  
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 688 75 96 96



**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

**BERRIA!  
GOLD LOKATZAK**

secretos™  
del agua

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



**Eleppe**  
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462



GOLDWELL  
**ELUMEN**

**mistoa**

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

Arkeneko produktu eta teknikak!



# Igandeko Andatza Egunean ez da jan-edanik faltako

**M**aiatzeko lehen igandearekin batera, badator Andatzara igotzeko usadio zaharra berritzeko eguna. Goizpasa girotua iragarri digu eragile talde batek.

Zirimarako familia plana izango da, eta jan-edanik ez da faltako goian. “Usurbilgo herritar guztioi Andatzara igotzeko gonbita egin nahi dizuegu. Zirimarako familia planean edo, norbera, bere kaxa, nahi duen bide eta lagunekin. Behin Andatzara igotakoan, denok argazkia atera eta elkarrekin dantzatu edo salda eta pintxo hartzeko aukera izango da. Giro ederra egongo da aurten Andatzen. Animatu!”.

## Maiatzak 7, igandea

■ 09:30 Txokoaldeko trenbide ondoko aparkalekutik hasita, Zirimararen familia-plana: “Fa-



Goizean zehar pintxoak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da.

## ANDATZA EGUNA

**“Zirimarakoek familia plana iragarri dute igande goizerako”**

milia giroan, Usurbilgo mendi kuttunak gordetzen dizkigun zenbait txoko eder, mitologiako zenbait pertsonaiaren es-

kutik ezagutzeko aukera izango dugu”.

■ Goizean zehar, pintxoak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da Andatzako bordan.

■ 12:30 Argazkia Andatzako bordaren parean.

■ Antolatzaileak: Ibai-ondo elkarte, Zirimara, Mitologia Taldea.

■ Babesleak: Saizar Sagardotegia eta Usurbilgo Udala.

# Ziklo zabala iragarri dute udal liburutegian

**Y**olanda Arrieta Malaxetxebarriaren eskutik, irakurketa solasaldia egin zuten iragan astean LH 4 eta 5 mailetako gaztetxoekin giro eder eta lasaian. Arrietaren “Zazpi pertsonaia istorio bila” liburua aztertu zuten. Eskaintza oparoa iragarri dute udaberri honetarako Sutegi udal liburutegian.

## Udaberria liburutegian

### Maiatzak 8, astelehena

■ 18:30 Basa (Ekar) liburua mintzagai izango duen literatura solasaldia. Miren Amuriza idazleak parte hartuko du solasaldian.

### Maiatzak 10, asteazkena

■ 18:00 Literatura solasaldia LH6ko gaztetxoekin, Yolan-

da Arrietak bideratua. Miren Agur Meabe idazlearen *Bihotzak Dun-Dun* (Elkarlanean) liburua aztertuko dute.

### Maiatzak 18, osteguna

■ 18:00 Ipuin kontaketa liburutegian HH4ko haurrentzat Miriam Mendozarekin.

### Maiatzak 23, asteartea

■ 18:00 Ipuin kontaketa HH5eko haurrentzat liburutegian, Ixabel Agirresaroberekin.

### Maiatzak 25, osteguna

■ 18:00 Ipuin kontaketa liburutegian 6 urtetik gorako haurrentzat, LH1etik aurrerakoentzat, Dorleta Kortazarrekin.

### Ekainak 6, asteartea

■ 19:00 Gaztelerazko solasal-



Yolanda Arrieta, aurreko astean egin zen irakurketa solasaldian.

dia. Txani Rodriguezen *Los últimos románticos* (Seix Barral) liburua aztertuko dute egilearekin berarekin.

Oharra: liburuon aleak Sutegi udal liburutegian eskuragarri. Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.



## Larunbat honetan, Usurbilgo Elkargunearen aurkezpena

Herriko nerabe, gazte eta kulturgileentzako “Usurbilgo Elkargunea” eraikitzeko prozesuan dira herriko hainbat eragile. Egitasmoa jendaurrean aurkeztera doaz, larunbat honetan, maiatzaren 6an, eguerdiko 12:00etan Aranerrekako parke eraberrituan. “Usurbilgo elkargunearen proiektuaren berri emango zaio herriari. Honakoa lantzen jardun dira Aztarrrika Gazte Asanblada, Usurbilgo Kulturgunea, Ziortza Gazte Elkarte eta Gaztelekua. Usurbilgo herriak nerabeentzako, gazteentzako eta kulturgileentzako gune edo espazio fisiko berri bat behar du. Espazio hori egikaritzeko, Usurbilgo Elkargunea proiektuaren lehen zirriborroa aurkeztuko dute”.

## “Askari osasuntsuak” saioa Potxoenean

Maiatzaren 16an asteartea, arratsaldeko 17:00etan Potxoenean, Igor Gorriti eta Lucia Ucarren eskutik. “Zer jan edo ez jan? Zer dago ondo eta zer gaizki? Nondik hasi elikaduraren heziketan? Elikadura osasuntsuaren inguruko hitzaldi-tailer praktikoa. Bost minututan prestatzeko pikoteoa ere egongo da!”.

Izen-ematea aurrez usurbilkultura.eus plataforman.

# Festei begirako bi ekimen iragarri ditu Santixabeletako Jai Batzordeak

Urtero moduan, Usurbilgo Jai Batzordeak ekainaren 29tik uztailaren 3ra ospatuko diren herriko festei begirako bi ekimen abiarazi ditu.

## Jaiei hasiera emateko ohorea

Ekainaren 29tik uztailaren 3ra ospatuko diren herriko festei hasiera nork emango dien proposatzeko aukera duzue. Txupinazoa pizteko ohorea izango duen herrikide edo herritarrek nortzuk izan erabaki dezakezue. Ekarpinak ohi bezala, udaletxean, Potxoenean, Sutegin eta Oiardo Kiroldegian egokituko dituzten kutxetan egin ahalko dira edo kultura@usurbil.eus helbidean. Nork eta zergatik eman beharko liokeen jaiei hasiera, horixe zehaztu beharko duzue deialdi honetan parte hartu nahi duzuenok. Maiatzaren 23ra arte izango duzue horretarako aukera.

## Egitaraua diseinatzeke lehiaketa

Datozen herriko festen berri emango digun egitaraua diseinatzeke lehiaketa ere iragarri du Jai Batzordeak. Maiatzaren 23ra arteko epea izango dute interesdunek txapelketa honetara lanak aurkezteko. Diseinu lanari dagokionez, ohi bezala, lehenbizi Potxoenean egitarauko testua eskuratu beharko da edo bestela kultura@usurbil.eus



Herriko festei hasiera nork emango dien proposatzeko aukera duzue. Ekarpinak udaletxean, Potxoenean, Sutegin eta Oiardo kiroldegian egokituko dituzten kutxetan egin ahalko dira.

## DISEINU LEHIAKETA

**“Egitarauaren diseinu lehiaketan parte hartu nahi dutenek maiatzaren 23ra arteko epea izango dute”**

helbidean galdegin.

Testu horretan oinarritu beharko da eta sortze lana, euskaraz, neurri librean. Udalaren logoa erantsi beharko zaio. Lanak paperean eta euskarri digitalean (CD edo pendrive batean, PDF formatuan) aurkeztu beharko dira, bi gutunazaletan. Bietan egilearen izengoitia, A edo B gutunazala den eta “Santixabel egitarauaren lehiaketa” adierazi

beharko da. “Izengoitia ez den beste izenik erabiltzen bada identifikatzeko, eta izen horrek parte-hartzailea zein den jakiteko bidea ematen badu, parte hartzaile hori lehiaketatik kanpo geldituko da”.

A gutunazalean, “aurkezleari buruzko datuak bilduko dira: izen-abizenak edo taldearen izena, IFZ/IFK, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa eta hura identifikatzeko behar den beste edozein datu”. B gutunazalean, “proposatzen den diseinua joango da, euskarri digitalean eta paperean”.

Nahi adina sortze lan aurkeztu daitezke, norbanako gisa, edo taldean eta “taldean aur-

keztuz gero, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun”. Modu batean edo bestean ordea, lanek aurrez argitaratu gabek eta originalak izan beharko dute. “Aurkeztutako lanetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da”.

Epaimahaiak izango du azken hitza. “Erabakia hartzeko orduan, garrantzia handia emango zaio, besteak beste, egitaraua erraz irakurtzeko modukoa izateari”. Txapelduinak 500 euroko saria irabaziko du.

## Informazio gehiago:

943 377 199  
usurbilkultura.eus

## Udajolasen izena emateko epea maiatzaren 10ean amaituko da

NOAUA! Kultur Elkarteak eta Usurbilgo Udalak elkarlanean antolatuta dute Udajolas. Uztailaren 4tik 28ra egongo da martxan: astelehenetik ostiralera, goiz partean eta lau orduz. Ostegunetan ordea, egun osoko txangoak egingo dituzte.

Izena ematen dutenak la-

gun giroan ibiliko dira eta baloreetan oinarritutako hezitzaileei esker, aisialdian euskaraz gozatzeko aukera izango dute.

HH3-LH6 mailetak, hau da, 4-12 urte arteko haur eta gazteei zuzenduriko eskaintza honekin bat egiteko epea maiatzaren 10ean itxiko da. Online bide-

ratu beharko dira inskripzioak. Behin partaideen zerrenda osatuta, ekainaren 20an egingo da guraso-bilera.

Gure web orrialdean topatuko dituzue xehetasun guztiak eta baita izen-ematea osatzeko formularioa ere: noaua.eus/berziak/udajolas-2023



Irudian, izen-ematea egiteko lotura.



# Txirikordan bizitzeko hautagaien zerrendak plazaratu ditu Udalak

**T**xirikorda belaunaldiarte-ko etxebizitza komunitarioan bizi nahi dutenen hautagaien zerrendak kaleratu ditu Usurbilgo Udalak. Zehazkiago esanda, otsailaren 28a baino lehen izena eman zutenen onarturiko eta bazterturiko eskaeren behin-behineko zerrendak plazaratu ditu. Gogoan izan, emantzipazio arazoak dituzten 18-30 urte arteko gazteek eta 65 urtetik gorako herrikideak elkarbizitzen jarriko dituela egitasmo aitzindari honek.

Bi kolektibo hauekin zerrenda bana osatu du Udalak. “Udal zerbitzuek, baremazio eta esleipen prozedura erregelamenduan jasotakoaren baitan, aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, talde bakoitzeko onartutako eta baztertutako zerrenden proposamen bana egin dute”, Udaletik azaldu dutenez.

Gazteenean, 23 izan dira onarturiko eskabideak, bakarra baztertua. Lau eskaera aurkeztu dituzte bina lagunek bi logelako etxebizitzetarako, eta banakako beste 19 eskaera logela bakarreko etxebizitzetarako. 65 urtetik gorakoen artean,



Txirikordan bizitzeko 30 eskabide iritsi dira udaletxera.

## UDALA

**“Zozketa publikoa izango da, eta behin betiko zerrenda publikatzen denean jakinaraziko da zein egunetan eta non izango den”**

lau eskaera onartu eta beste bi baztertuak izan dira. Ia denek bi gelako etxebizitzak eskatu dituzte. Orohar, Txirikordan bizitzeko 30 eskabideez osaturiko zerrenda argitaratu du Udalak. Batetik, Udaleko iragarkien taulan duzue ikusgai, baita usurbil.eus atarian ere.

Behin-behinekoak dira onarturiko zein bazterturiko eskabideen zerrendok, apirila-

ren 25eko 2023/411 alkate dekretu bidez. Hauetako aukera izango da maiatzaren 5era arte.

Epe hau igaro ostean, “behin betiko zerrenda argitaratuko da”, iragarri du Udalak. Gogoan izan, 16 bizilekuz osatua dagoela Txirikorda: zortzi 18-30 urte arteko gazteteentzat eta beste zortzi 65 urtetik gorakoentzat. 65 urtetik gorakoei zuzenduriko etxebizitzak, Gizarte Zerbitzuetako langileen baremazio bidez esleituak dira, gazteenak zozketa bidez. “Zozketa publikoa izango da, eta behin betiko zerrenda publikatzen denean jakinaraziko da zein egunetan eta non izango den”.

## Udal aurrekontuak ohiko martxan exekutatzeko ari dira

2023ko lehenengo hiruhilekoa amaituta, kontu hartzaileak aurrekontuen exekuzioaren berri eman zuen apirilko osoko bilkuran. Haren esanetan, au-

rrerikontuak ohiko martxan exekutatzeko ari dira.

Horrez gain, udalak fakturak ordaintzeko batez beste zenbateko epea behar izaten

duen ere jakinarazi zen. Epe horrek 30 eguneko azpikoa izan behar du legez, “eta Usurbilgo Udalaren kasuan, 11,38 eguneko izan da, batez beste”.

## Angulararen arrantzarako 150 lizentzia sortuko dituzte

Angulararen arrantzaren jardueraren profesionalizatzeko akordioa iritsi dira Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Angularien Elkarteak.

Europar Batasunak angulararen kirol-arrantza debekatu zuen iazko abenduan. Honen aurrean, espeziea berreskuratzeko eta legez kanpoko trafikoa saihesteko helburua du akordioa. “Profesionalizazioa da jardueraren tradizionala mantentzeko modu bakarra”, dio Eusko Jaurlaritzak.

Akordio honi esker, urtero 150 lizentzia emango dira. “Helburua espeziearen jasangarritasuna zaintzea da eta horretarako itsas ingurunean espezializatutako AZTI zentro zientifiko eta teknologikoaren gomendioetan oinarritutako kupo bat ezarriko da”.

Angulararen arrantzaren kudeaketa gardena zaintzeko eta espeziearen etorkizuna zein izango den argitzeko, jarraipen batzorde bat ere sortu da. Batzorde hori Eusko Jaurlaritzako Arrantza Zuzendaritzak, Euskadiko Angularien Elkarteak, AZTIk eta talde ekologistek osatuko dute.

## Eguzki: “Biodibertsitatearen aurkako eraso larria da”

Eguzki talde ekologistak ordea, bere kezka azaldu du. Akordio hau “biodibertsitatearen aurkako eraso larria” dela dio, besteak beste, aingiraren egoera mutur-muturrekoa delako.

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ASTEARTETIK-LARUNBATERA  
8:30-13:30  
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI  
650 31 31 91 USURBIL

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO  
Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78  
RPS: 19/22  
20170  
USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

# Julen Nazabal Polonian ari da ikasten: “Denok ari gara bidaiatzeko aprobetxatzen”

Poloniara joateko gomendioak eraman zuen Julen Nazabal Erasmus esperientziak Wrocław hirira. Orain, bertako giro onak, parrandak eta bidaiatzeko ematen dituen aukerek maitemindu egin dute herritarra. NOAUA!rekin izan da Polonian bizitzen ari den esperientzia ahaztezina partekatzeko.

**NOAUA! Erasmusak Poloniara eraman zaitu. Non zaude zehazki eta noiz joan zinen?**

**Julen Nazabal:** Polonian nago, Wrocław hirian. Otsailaren 10ean iritsi nintzen, Polonian bigarren lauhilekoa beranduago hasten baita gurean baino. Otsailaren 22an hasi nintzen klaseekin, baina bitarteko egunak bidaiari pasatu nituen. Otsailaren 12an Estocolmora joateko aprobetxatu genuen astebetetz.

**Europan jende askok erabakitzen du Poloniara joatea. Zure lehen aukera izan zen? Zer du Poloniak horren berezi?**

Unibertsitatean zerrenda luze bat eman ziguten aukera guztiekin. Ez neukan oso argi nora joan eta “Callejeros Viajeros” estiloko programak ikusi nituen gurasoekin ideiak hartzeko. Usurbilen ere zaharragoi galde-tu nien aholku eske, eta urtebete zaharrago diren Malenek eta



“ADE izeneko ikasketak ari naiz egiten, administrazioa eta ekonomiari lotutako ikasketak”.

## JULEN NAZABAL

**“Wrocław Polonia mendebaldean dagoen hiri bat da eta Ukrainatik beste hiri batzuk baino askoz ere urrunago dago”**

Intzak Poloniaz oso ondo hitz egin zidaten. Haiek joan zen

urtean izan ziren Poloniako bi hiritan eta oso esperientzia ona bizi izan zuten. Jende askok hitz egin zidan Hegoamerikari buruz ere, baina errespetua ematen zidan. Interneten mila orrialde daude Erasmus programan parte hartu duen jendeak sortutakoak eta begira ibili nintzen han ere. Merkea

eta parrandarako leku aproposa dela zioten denek eta bidaiatzeko mila aukera. Beraz, parranda eta bidaiari aukera horrek erakarri egin ninduen. Horrez gain, unibertsitatean oso zorrotzak ez direla ere jakin ahal izan nuen. Datu horiek nahikoa izan ziren Poloniara joan nahi nuela erabakitzeko.

**Zein ikasketa ari zara egiten?**

ADE izeneko ikasketak ari naiz egiten, administrazioa eta ekonomiari lotutako ikasketak. Mondragon unibertsitatean ari naiz ikasten, eta Polonian ere ikasketa bera jarraitzen ari naiz.

**Ukrainako krisiagatik Poloniak ukrainar asko hartu ditu eta Errusiarekin tentsioa handia da. Jendeak zer dio horri buruz?**

Wrocław Polonia mendebaldean dagoen hiri bat da eta Ukrainatik beste hiri batzuk baino askoz ere urrunago dago. Ez dut Ukrainako inor ezagutu hemen eta ez dut kalean ere halakorik nabaritu. Hala ere, bada taxi zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat eta Varsovia-ra joan ginenean ikusi genuen gidari batzuk ukrainarrak zirela eta hango matrikula zeukatela autoek. Gainontzekoan, ez dut besterik topatu.

## “Lehen bi egunak oso gogorak egin zitzaizkidan”

**NOAUA! Erasmus esperientziak jende berria ezagutzeko aukera ederra eskaintzen dute. Nongo jendea ezagutu duzu?**

**Julen Nazabal:** Ikasle-egoitzara iritsi berritan oso bakarrik sentitu nintzen. Lehen bi egunak oso gogorak egin zitzaizkidan. Espainiako 6 gaz-

te zeudela esan zidaten, baina ostiral batez iritsi nintzen eta haiek bidaiari joanak ziren. Lehen momentu horretan familia eta lagunak faltan botatzen nituen. Hala ere, espainiarrak bidaiari itzuli eta berehala egin ginen lagun. Bost andaluziar eta madrildar bat dira, eta ezinhobe beraiekin. Jende

zoragarria da. Ikasle-egoitzan denetik dago: japoniarrak, alemanak, ingelesak... haiekin ez daukagu harremanik. Italiar batzuk bizi dira hemen eta haiekin harreman pixka bat egin dugu, baina gutxi gehiago. Unibertsitatean ere ez dut ia inor ezagutu. Seiko taldean ibiltzen gara finean.



“Otsailaren 12an iritsi nintzenean, hotz handia egiten zuten Wrocławen”.



# “Aste Santuko oporretan gurasoak etorri zitzaizkidan bisitan”

**NOAUA! Nolako da zure egunerokotasuna Polonian? Zer egiten duzue astean zehar?**

**Julen Nazabal:** Wroclawen astelehen, asteazken eta ostiraletan parranda izaten da. Egun bakoitzeko diskoteka batera joaten gara. Larunbatetan askotan ez gara ateratzen, egun horretan poloniarrek ateratzen dira. Poloniarrek nahiko hotzak dira eta jarrera oldarkorrek ere izan ditzakete, eta horri alkohola gehituta, pentsa. Asteburuetan oso gutxitan egiten dugu parranda. Gainontzeko egunetan espainiar ugari ibiltzen dira diskoteketan eta giro bikaina egoten da. Unibertsitatean asteazkenetan izaten dut zuzeneko klasea eta gainontzekoak online izaten dira. Beraz, astelehenetan parranda egiten dugu, asteartetan lo eta gimnasia joaten gara, asteazkenetan gimnasia joaten gara eta parranda, ostegunetan lo eta gimnasia eta asteburuetan bidaiak. Kanpoan gutxitan afaltzen dugu, seiatarako afaltzen dute poloniarrek eta bederatiak aldera afaltzera joenez gero, ez dute onartzen. Beraz, ikasle-egoitzan egiten ditugu ostorduk.



“Astelehen, asteazken eta ostiraletan parranda izaten da Wroclawen”.

## JULEN NAZABAL

**“Hegaldi merkeei esker, European barna ibiltzeko aukera ederra daukagu”**

**Europa erdian zaude eta bidaiatzeko mila aukera izango dituzu. Nora joan zara oraingoz? Baduzu beste bidaiarik buruan?**

Wroclawetik lau bat ordura dago hiriburua eta trenez, lau euro eskasen truk Varsovia-

ra joan gaitezke. Poznanera ere joan ginen beranduxeago; Poloniako beste hiri batera. Asteburua aprobetxatuz eta bidaiatzea hain merkea dela ikusita, bertara joan ginen asteburu pasa. Belgikan ere izan naiz. Bruselan izan ginen lehendabizi, egun bat egin genuen bertan, eta handik Gantera joan nintzen Zarautzen batxilergoan ezagutu nuen lagun bati bisitan. Astebeterrako joan nintzen eta ia egun guztiak Ganten egin bageni-

tuen ere, Brujasera joan ginen egun bat pasatzera. Pragara ere joan naiz berriki asteburu pasa egiteko. Eguraldi onak hastean Kroazia, Albania, Grezia eta Hungariara joateko asmoa daukagu. Hegaldi merkeenak bilatzen ditugu eta horrela European barna ibiltzeko aukera ederra daukagu. 20-30 eurotan aurkitzen ditugu hegaldi gehienak eta ia edonora joan gaitezke European zehar. Kultura berriak ezagutzea gustatzen zait eta azken finean, berdin zait zein herrialdetara joan. Aste Santuan gurasoak etorri zitzaizkidan bisitan, bai eta lagun batzuen gurasoak ere. Haiekin Poloniako leku pila batean izan ginen. Uda partean Jordaniara ere joan nahiko nuke. Garestitxo da aukeran, baina ea eskaintza onik topatzen dugun. Denok ari gara bidaiatzeko aprobetxatzen. Eguraldia asko ari du hobetzen Polonian eta hemen bertan egoteko ere giro ona dago. Iritsi nintzenez hotz handia egiten zuen eta arratsaldeko 5etan ilun zegoen. Orain asko epeldu du eta eguna ere izugarri luzatu da.

## “Uztailaren erdialdean itzuliko naiz etxera”

**NOAUA! Zerbait botatzen duzu faltan etxetik?**

**Julen Nazabal:** Hasieran jendea izugarri. Lagun bikainak egin ditut eta uneoro ari gara jarduerak egiten: gimnasia, parranda, denbora pasa... Beraz, orain jada ez dut inor gehiegi falta botatzen. Janaria ere botatzen dut faltan, etxean prestatzen dugu janaria. Hasieran beti arroza edo pasta jaten genuen, baina pixkanaka ari gara ikasten eta gauza gehiago prestatzen.

Joan zen urteko maiatzean unibertsitatekoak New Yorkera joan ginen hilabete pasatzera eta Sagardo Eguna galdu nuen. Duela bi urte Covidaren ondorioz, baita ere, eta aurtien ere ez naiz bertan izango. Datorren urtean bertan izatea espero dut.

Kalexarko jaiek ere pena handia ematen didate, auzoko festak ditudalako eta Usurbilgo jaietan ere ez naiz egongo, uztailaren 10-15 aldera itzuliko naizelako.

**Behin esperientzia hau amaituta, zer asmo duzu?**

Ni beti izan naiz oso “etxezulo” motako pertsona. Euskal Herrira itzuliko naiz Poloniako esperientzia bukatzean eta bertan egingo dut bizitza. Datorren urtean master bat egingo dut eta etxean egongo naiz gustura.

**Jende askok gomendatuta iritsi zinen zu Poloniara. Zuk ere gomendatuko diezu gazteagoei?** Izugarri. Oso merkea da jan eta

edatea. Parranda ere egunero egin daiteke eta Erasmuseko jende pila bat dagoenez, lagun ugari egiteko aukera ere ematen du, eta nolaez, bidaiatzeko. Poloniarrek diranik aurkitu dudana arazorik handiena. Hotzak izateaz gain, ingelesa ez dakite askok eta zaila da eurekin komunikatzea. Lagun batzuk ospitalera joan behar izan zuten eta ez zieten kasurik egiten eta komunikazio arazo larriak izan zituzten.

# Lehen sorosle eta sorospen ikastaroa iragarri du DYAk maiatzerako

**M**aiatzaren 8tik maiatzaren 26 arte DYAk sorosle eta lehen sorospenetako ikastaroa eskainiko du Usurbilen. Herritar guztiei irekita dago parte hartzeko aukera [www.dyagipuzkoa.com](http://www.dyagipuzkoa.com) helbidean eta 943 46 46 22 telefono zenbakian. 120 euro balio du eta ikasle kopurua mugatua izango da.

Hiru aste iraungo du ikastaroak eta astelehenetik ostiralera izango da 19:00-21:00 bitarte Muna Lurra kalean Usurbilgo DYaren Ordezkaritzan.

Izena-emateko ez da beharrezkoa aurrez ezagutzarik izatea. Egunerokoan izan daitezkeen arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko dute DYako kideek: bihotz eta birika susperketa, zauriak, haus-



Izena emateko ez da beharrezkoa aurrez ezagutzarik izatea.

## USURBILGO EGOITZAN

**“Hiru aste iraungo du eta astelehenetik ostiralera eskainiko dute”**

turak, erredurak... Ezagutza arrunt, baina erabilgarriak izango dira. Modu eroso eta

atseginen erakusten dituzte ezagutza hauek teoria eta praktika uztartuta.

## Sorosle titulua

Ikastaro amaieran, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen sorosle titulua eskuratzeko aukera izango dute.

# ‘Katta’ ipuinaren egileak Urbilen izan ziren

Miren Agur Meabe idazlea eta Enrique Morente ilustratzailea dira *Katta* (Elkarlanean) liburu bildumaren sortzaileak. Aurreko ostiralean Urbilen izan ziren, Kattaren bi liburu berrienak aurkezten eta jende asko erakarri zuten. Gaztetxoan artean zale asko dituzten seinale. Bertaratu ziren guztiek idazlearen sinadura eta ilustratzailearen marrazki bat eskuratzeko aukera izan zuten. Amaieran, ipuin bilduma baten zozketa egin zuten bertaratu ziren guztien artean.



Urbilgo ekitaldira hurbildu zirenen artean ipuin bilduma bat zozkatu zuten.

## Dolua eta etxeko garbikariak aztergai Santuenean

Javier Aramendia aditua Santuenera hurbilduko da ostiral honetan eta bizi amaierako prozesuez eta doluaz arituko da hizketan. Hitzaldia arratsaldeko 18:30ean hasiko da.

Ez da Santuenea Elkar-teak maiatzerako iragarri duen ekitaldi bakarra izango. Datorren astean, *Sendabelarrak* tailerraren baitan, etxeko garbikarietan errepertatu dute. Maiatzaren 12ko solasaldian, “erabiltzen ditugun produktuak zer daukaten ulertzen saiatuko gara eta alternatiba jasangarriak proposatuko ditugu”, Santuenea elkartetik jakinarazi dutenez.

## Maiatzak 5, ostirala

■ 18:30-20:00 “Bizi amaierako prozesuak, dolua eta galerak” solasaldia.  
■ Hizlaria: Javier Aramendia.

## Maiatzak 12, ostirala

■ Orduetgia: 17:30/19:30  
■ Non: Santuenea, 12.  
■ Prezio: 10 euro.  
Bazkideek, 7 euro.  
■ Izen-ematea: 670 027 731.



Javier Aramendia Santuenean izango da ostiral honetan.

**ZENDOIA ENEA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak

649 43 54 75  
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**BORDATXO**  
taberna

Pintxo Bereziak  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**ARANKA BERRIKUNTZAK**

· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak  
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa  
· Igeltseritza orokorra

722 297 867 USURBIL



**ETXEBIZITZA****Salgai**

San Inazio kalean pisua salgai. 200.000 euro. 4. pisua. Erreforma behar du. 687 34 82 23.

**Alokairuan**

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Jarduera lizentzia duen pisua da, igo-gailua, bainugela, sukaldaria eta itxarongela barne. WiFi eta elektrizitatea barne. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Usurbilen, kaxkoan edo auzoetan mutil batentzako pisu bila nabil. 622925562

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bizitzeko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Familiarteko baten egonaldirako litza-teke. 636711514

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta

13 urteko semea gara. 683548749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

**MOTORRA****Salmenta, garajeak**

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947. 18:00etatik aurrera deitu.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarrerako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Gutxi erabilitako lau gurgil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m<sup>2</sup> garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Zubietan etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu lanaldi erdian. 695 783 202.

Zaintzailea behar dugu aste-buruetan pertsona heldu batentzat. Euskalduna bada hobea. 616 273 785.

Sukaldari bat behar dugu Kale-zarko Matiaeren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrik eman-gotz dizkion pertsona baten bila gabiltza. 608201745

Klase partikularrik emateko prest daudenen zerrenda osatzen ari da Udaregi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

**Lan eskaerak**

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia. 602 082 583.

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen: 602 586 014.

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila

dabilen neska euskaldun bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsaldez haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

**BESTELAKOAK**

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erloju beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzaingoa galdetu, bertan utzi duagu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Parketik bueltan jantzita genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaitena dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzita eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu: 687 779 669.

**Futbol partidak****Haranen:****Maiatzak 6, larunbata**

■ 09:30 Kadete preferenteak:

-Usurbil FT.

-Urniet KE.

■ 11:15 Eskolartekoa.

■ 12:30 Infantil mutilak:

-Usurbil FT.

-Kostkas KE A.

■ 16:00 Preferente neskak:

-Usurbil FT.

-Zestoa KB.

**Maiatzak 7, igandea**

Futbol Eskola.

■ 16:30 Jubenilak:

-Usurbil FT.

-Arrupe Chaminade CD D.

**Futbol partidak****Kanpokoak:****Maiatzak 6, larunbata**

■ 09:30 Infantil neskak,

Beasaingo Igartzan: Goierri Gorri A-Usurbil FT A

■ 10:30 Donostiako

Cesar Beniton:

Intxaurdi A-Usurbil FT B

■ 10:15 Kadete neskak,

Segurako Alustizan:

Aizkorri FT-Usurbil FT

■ 13:05 Kadete mutilak,

Lasarteko Michelinen:

Ostadar C-Usurbil FT B

■ 17:30 Erregionalak,

Donostiako Herreran:

Asoleus CF-Usurbil FT B

■ 19:25 Preferente mutilak,

Donostiako Berion:

S. Tomas Lizeoa-Usurbil FT

■ 19:25 Preferente mutilak,

Donostiako Herreran:

-Sporting de Herrera B.

-Usurbil FT B.

■ 19:25 Preferente mutilak,


Donostiako Herreran:

-Sporting de Herrera B.

-Usurbil FT B.

**Senior nesken eskubaloi taldea osatzeko bilera**

2023-24 denboraldirako senior nesken eskubaloi taldea osatzeko dagoen asmoaz hitz egiteko bilera deitu du Usurbil Kirol Elkarteak ostira-lean, maiatzaren 5ean, arratsaldeko 18:00etan Oiarde Kiroldegian. "Dakizuen bezala oso garrantzitsua izango da bertaratzea, eta ezin izanez gero, gurekin jarri harremanetan eta zuen asmoez berri eman!", egin dute gonbita.

**Zorionak Janet!!**

Maiatzaren 1ean bi urte handi egin zenituen. Jarraitu orain arte bezain alai eta saltsera izaten! Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu, matraka!

**Heriotzak****Anselmo****Sanchez****Centeno**

Apirilaren

26an hil zen,

66 urterekin

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 04** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 05** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 06** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 07** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astlehena 08** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteartea 09** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteazkena 10** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Osteguna 11** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Ostirala 12** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Larunbata 13** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Igandea 14** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
GOMEZ BRAVO, MARINA  
Kale Nagusia, 14 Hernani  
943 55 48 92

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

# Agenda maiatza

## 05 ostirala

- **Solasaldia Santuenean: "Bizi amaierako prozesuak, dolua eta galerak".** 18:30ean auzoko elkarteetan, Javier Aramendiarekin.
- **"Zumetaren muralak 50 urte" erakusketak** Sutegin. 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.

## 06 larunbata

- **"Zumetaren muralak 50 urte" erakusketak** Sutegin. 11:30-14:00 eta 17:00-20:00.
- **Ate Irekiak Lanbide Eskolan,** 10:00 Goi Maila. 11:30 Erdi Maila.
- **Usurbilgo Elkargunearen aurkezpena,** 12:00. Tokia: Aranerrekako parke berrian.

## 07 igandea

- **Andatza Eguna** Ikus 15. orrialdea.
- **"Zumetaren muralak 50 urte" erakusketak** Sutegin. 11:30-14:00 eta 17:00-20:00.

## "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua Sutegitik abiatuko da

Herrian ditugun artelan ezberdinak deskubritzeko aukera aparta izango dugu asteburu honetan. "Lehengoz zein oraingo izen handiko sortzaileen lanak eta ondare aztarnak non nahi izango dituzu zure begiradaren zain".

### Maiatzak 6 | Maiatzak 7

- **Ordutegia:** 12:00-13:00.
- **Abiapuntua:** Sutegi.
- **Izen-ematea:** 3 euro (18 urtetik beherakoek doan), 650usurbilbizi.eus atarian.
- **Informazioa:** 650usurbilbizi.eus



Bisita gidatuak ordubete iraungo du. Aurretik eman behar da izena.

## Dolua eta galerak hizpide Santuenean

Javier Aramendia Bihotzetik plataformaren arduradunak eskainiko du hitzaldia. Bizi amaierako prozesuak, dolua eta galerak gizatiartu eta naturalzea du helburu. Gai praktikoak ere landuko dira: sedazioa ala eutanasia? Testamentua ala azken borondateak?

### Maiatzak 5 ostirala

- 18:30ean Santuenea elkarteetan.
- Saiorako izen-ematea: 670 027 731.
- Antolatzailea: Santuenea elkartea.

## Ate Irekien jardunaldiak Lanbide Eskolan

Hitzordu honetara hurbiltzen diren ikasleei erdi zein goi mailako zikloetan ikasi daitekeena aurkeztuko zaie.

### Maiatzak 6 larunbata

- 10:00 Goi Maila.
- 11:30 Erdi Maila.

### Informazio gehiagorako:

lhusurbil.eus  
943 364 600  
orientazioa@lhusurbil.eus

### Datozenak



## Miren Amurizaren "Basa" liburua hizpide izango dute udal liburutegian

Miren Amuriza bertsoaria eta idazlea Sutegira hurbilduko da datorren astelehenean. *Basa* (Elkar) liburuaz arituko da luze eta zabal. Nobela irakurri ez duzenok, hainbat ale eskuragarri dituzue udal liburutegian.

### Maiatzak 8 astelehena

- 18:30ean Sutegi udal liburutegian.

## "Bihotzak Dun-Dun" liburuari buruzko literatura solasaldia

Miren Agur Meaberen *Bihotzak Dun-Dun* liburua aztertuko dute LH6ko gaztetxoek. Yolanda Arrietak bideratuko du solasaldia. Liburu honen aleak udal liburutegian eskura ditzakezue.

### Maiatzak 10 asteazkena

- 18:00ean Sutegi udal liburutegian.

**GAR**  
GRUPO MONROY  
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK  
943 53 72 38  
628 45 78 39 628 91 72 15  
reformas@reformasmonroy.com  
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

ZALDIGAIN  
ERREMENTARIA  
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.  
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....  
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

Inaki Iturgintza  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK  
Info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com  
600 024 825

USURBIL DÖNER KEBAB  
843 675 265  
603 609 183  
USURBIL DÖNER KEBAB  
USURBIL\_DK  
Borda Berri Kalea, 5



# ZIRIMARA

2023-24

Gelditu gabe jardunean

**IZEN EMATEA:**  
**online maiatzak 15-26**  
<https://labur.eus/sxQf4>



Izen ematea burutzeko ordainketa egin behar da Ikastolako  
ES45 3008 0259 1121 8354 1214 kontu korrontean  
eta agiria bidali eskolakirola@udarregi.eus helbidera

Oharrak:

- Eskola Kirolean parte hartzeko derrigorrezkoa da Oiaro Kiroldegiko bazkide izatea, izan norbanako modalitatean edo familia modalitatean.
  - Kiroldegiko abonamendurako hobariak eta eskolaz kanpoko kirolean aritzeko diru laguntzak daude errentaren araberakoak.
- Informazioa Udalaren webgunean edo Kiroldegian eskura dezakezu

## LH 1-2ko ESKAINTZA

Asteko saioa asteartetan izango da (16:30-18:30)

- Jolas hezi programa • Psikomotrizitatea • Natur jarduerak • Saio bereziak • Famili planak

## LH 3 - 4ko ESKAINTZA

Asteko saioa ostegunetan izango da (16:30-18:30)

- Jolasak • Kirol alternatiboak • Talde kirolak • Banakako kirolak • Natur jarduerak • Saio bereziak • Famili plana

## ZIRIMARA FAMILIA

Asteko saioa asteartetan izango da (17:30-18:30)

- Gorputz mugimendua • Familia hezkuntza • Jarduera fisikoa familian • Jolasak

**GELDITU GABE JARDUNEAN!**



**noqua**





# Usurbilgo hautagaitzaren aurkezpen ekitaldia

Maiatzak 5, 19:00 - ARTZABAL



Andoni Atxega, Josune Urkola, Xabi Otxoa, Ivan Iriondo, Mirari Azurmendi

Aurrera, batera!  
**Usurbil**

